

FINANTZA KONTU, ERAGIKETA ETA AKTIBOEN BERRI ETA ATZERRIAN DIREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN BERRI EMAN BEHARRAREN ARAUDIA

111/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena, bai eta atzerrian diren ondasun eta eskubideena ere. [\(4\)](#)

(ALHAO, 150. zk., 08-12-31koa)

Maiatzaren 18ko 68/1999 Foru Dekretuaren bidez hainbat xedapenetan ezarritako informazio betebeharrak garatzen dira berariazko sektoreei dagokienez.

Une honetan egoki iritzi da araudia ezartzea Zerga Administrazioari kontuei, eragiketei eta aktibo finantzarioei buruzko informazioa, lehentasunezko partaidetza duten eragiketa jakin batzuei buruzko betebeharrei buruzkoa eta beste zor baliabide batzuei buruzkoa, eta Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuetan bizi diren pertsona fisikoek eskuratutako errenta jakin batzuei buruzko informazioa eman beharren inguruan.

Halaber, beste informazio betebehar batzuk erantsi dira, esate baterako: erakundeak eratu, ezarri, aldarazi edo deuseztatu izanari buruzko informazio betebeharra; identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi ez duten pertsona edo erakundeei buruzko informazio betebeharra edo notarioen esku hartzea izan duten egintza edo kontratuak agertzen diren eskriturak edo dokumentuak ematerakoan erabilitako ordainketa moduak identifikatu ez dituztenei buruzkoa; nekazaritzako, abeltzaintzako edo basogintzako jarduerak buruztik eratorritako dirulaguntzei edo kalte ordainei buruzko informazio betebeharra, gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenei buruzko informazio betebeharra, ondasun higiezinekin zerikusia duten finantza eragiketei buruzko informazio betebeharra.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak honi buruz emandako txostena eta Aholku Batzordeak emandakoa ere ikusirik,

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA [\(4\)](#)

FINANTZA KONTU, ERAGIKETA ETA AKTIBOEN BERRI EMAN BEHARRA [\(4\)](#)

1. artikulua. Edukia eta aplikazio eremua.

1. Foru dekretu honek Zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharrak batzuk garatzen ditu, eta bertan aipatutako pertsonen edo erakundeen eragiten die.

2. Foru dekretu honek heldutako aitoren Arabako Foru Aldundian aurkeztu beharko dira, Kontzertu Ekonomikoan ezarritakoarekin bat etorritik aurkeztea beharrezkoa den kasuan.

2. artikulua. Kreditu erakundeetan dauden kontuen buruzko informazio betebeharrak.

1. Kreditu erakundeak eta gainerako erakundeak, indarrean dagoen araudiaren arabera banku edo kreditu trafikoen jarduten badute, behartuta egongo dira urtero informazio aitoren aurkeztera, lurralde espainiarren barruan edo handik kanpo kokaturiko erakunde horietan irekitako edo haiek hirugarren batzuen eskura jarritako kontu guztien gainean.

Lurralde espainiarretik kanpo kokaturiko tokietan irekitako kontuak direnean, ez da nahitaezkoa izango lurralde espainiarrean bizitoki iraunkorra ez duten pertsona edo erakundeen buruzko informazioa ematea.

2. Zerga Administrazioari eman beharreko informazioak hurrengo datuak bilduko ditu: kontuen identifikazio osoa eta pertsona edo erakunde titularren, erakunde baimenduen edo kontu horien onuradunen izen-abizenak, edo sozietatearen izena, edo deitura osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia; kontu horien saldoa abenduaren 31n eta azken hiruhilekoko batez besteko saldoa, eta kasuan kasuko ereduaren onartzen duen Foru Aginduak ezarritako informazioa zehazteko garrantzitsua den beste edozein datu.

Eman beharreko informazioa kontu korronteen, aurrezki kontuen, epe baterako ezarpenei, kreditu kontuen eta beste edozein kontu buruzkoa izango da, hartzen duten ereduaren edo deitura zein den alde batera utzita, eta ordainketa, atxikipen edo konturako diru sarrera ez badago ere.

Pertsona edo erakunde titularren, baimenduen edo onuradunen izen-abizenak, edo sozietatearen izena, edo haren deitura osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia aitoren urteko uneren batean titular, baimendu edo onuradun izandakoen buruzkoak izango dira.

3. Artikulu honetan adierazitako informazioa biltzen duen aitoren urte bakoitzeko urtarileko lehenengo hogeita hamar egun naturalen aurkeztu beharko da eta informazioa aurreko urte naturalari buruzkoa izango da.

Aitoren foru aldundi honetako Ogasuneko bulegoetan aurkeztuko da, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak ezartzen duen ereduari jarraiki. Hark aitoren bide telematikotik aurkeztea nahitaezkoa zein inguruabarretan den ezarri ahalko du.

Hala eta guztiz ere, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak aitoren aurkezteko epea aldarazi ahalko du Foru Agindu bidez.

2 bis artikulua. (6) Elkarren laguntzaren eremuko finantza kontuen berri eman beharra.

1. Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 1. artikuluko 2. idatz zatian eta 29 bis artikuluan xedatzen duenaren arabera, finantza erakundeek aitorten informatiboa aurkeztu behar dute irekita dituzten finantza kontuez aplikatzen zaien elkarren laguntzaren arautegian zehazten diren kasu jakin batzuetan.

2. Aurreko idatz zatian aipatzen diren kontuei dagokienez, eta elkarren laguntzaren arautegia aintzat hartuta, finantza erakundeek kontu horien titularitatea edo kontrola duten pertsonen egoitza identifikatu behar dute (edo nazionalitatea, kasu batzuetan) arautegi horretan ezartzen denarekin bat etorriz. Identifikazioa nola egin Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak xedatuko du foru agindu baten bidez.

3. Informazio hau eman behar da: elkarren laguntzaren arautegian ezartzen denaren arabera eman beharreko datuak eta, ezinbestean, kontu bakoitzaren identifikazio osoa eta beraren titularitatea edo kontrola daukan pertsonaren izen-abizenak (erakundea bada, izen osoa) eta, behar izanez gero, identifikazio fiskaleko zenbakia edo antzekoa.

4. Aitorpena egiteko eredia Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez onartuko da.

3. artikulua. Maileguei eta kredituei eta eskudiru mugimenduei buruzko informazioa eman beharra. (1)

1. (1) Kreditu erakundeek eta indarreko arautegiarekin bat etorriz banku edo kreditu trafikoan diharduten gainerako erakundeek urteko aitorten informatibo hauek aurkeztu behar dituzte:

a) Emandako kreditu eta maileguetatik abenduaren 31n 6.000 eurotik gorako saldoa eduki dutenei buruzko aitorpena; aitorpenean kreditu eta mailegu bakoitzaren titularraren izen-abizenak edo sozietate izena edo izendazio osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia agertu behar dira.

b) Eskudirutan egiten diren 3.000 eurotik gorako ezarpen, baliatze eta kobrantzei buruzko aitorpena, bitarteko fisiko edo elektronikoa eta moneta (euroa zein besteren bat) gorabehera.

Aitorten informatibo honetan ez dira sartuko foru dekretu honetako 6. artikuluan ezarritakoaren arabera Zerga Administrazioari jakinarazi beharreko eragiketak.

Aitorpenean eragiketa bakoitzaren zenbatekoa adierazi behar da eurotan, zer izan den zehaztu behar da (ezarpena, baliatzea edo kobrantza), data jarri behar da, nork egin duen argitu behar da eta kargua edo ordainketa egin den kontuaren zenbakia adierazi behar da; horiez gainera zerga eredia onartzen duen Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren foru aginduan ezarritako informazioa zehazten lagundu dezaketen datu guztiak eman daitezke.

2. Artikulu honetan adierazitako informazioa biltzen duen aitorpena urte bakoitzeko urtarrileko lehenengo hogeita hamar egun naturaletan aurkeztu beharko da eta informazioa aurreko urte naturalari buruzkoa izango da.

Aitorpena foru aldundi honetako Ogasuneko bulegoetan aurkeztuko da, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak ezartzen duen ereduari jarraiki. Hark aitorpena bide telematikotik aurkeztea nahitaezkoa zein inguruabarretan den ezarri ahalko du.

Hala eta guztiz ere, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak aitorpena aurkezteko epea aldarazi ahalko du Foru Agindu bidez.

3 bis artikulua. (1) Kreditu edo kargu txartelen bidez egindako kobrantzei buruzko informazioa eman beharra.

1. Bankuek eta kreditu erakundeek eta indarreko arautegiarekin bat etorritik Espainian egoiliartutako enpresaburuei eta profesionalei kreditu edo kargu txartelen bidezko kobrantzak kudeatzeko zerbitzua egiten dieten gainerako erakundeek kobrantza sistema horri atxikitako enpresaburuek eta profesionalek urtean egindako eragiketen aitorpen informatiboa aurkeztu behar dute, kobrantzen guztirako zenbatekoa 3.000 euro baino gehiago izanez gero.

Aitorpenean enpresaburu edo profesional bakoitzaren identifikazio osoa adierazi behar da, bai eta sisteman jarduteko erabiltzen duen merkataritza zenbakia, urtean fakturatutako zenbatekoa eta kobrantzak egiteko erabiltzen duen kontua ere; horiez gainera zerga erdua onartzen duen Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren foru aginduan ezarritako informazioa zehazten lagundu dezaketen datu guztiak eman daitezke.

2. Artikulu honetan adierazitako informazioa biltzen duen aitorpena urte bakoitzeko urtarrileko lehenengo hogeita hamar egun naturaletan aurkeztu beharko da eta informazioa aurreko urte naturalari buruzkoa izango da.

Aitorpena foru aldundi honetako Ogasuneko bulegoetan aurkeztuko da, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak ezartzen duen ereduari jarraiki. Hark aitorpena bide telematikotik aurkeztea nahitaezkoa zein inguruabarretan den ezarri ahalko du.

Hala eta guztiz ere, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak aitorpena aurkezteko epea aldarazi ahalko du Foru Agindu bidez.

4. artikulua. Baloreei, aseguruiei eta errentei buruzko informazio betebeharra.

1. Balore higigarrien gordailuzain diren erakundeek hurrengo informazioa eman beharko diote zerga Administrazioari urteko aitorpena aurkeztearen bitartez horietan gordetako baloreen inguruan:

- a) **(12)** Merkatu antolatuetan negoziatutako entitate juridikoen kapitaleko edo funts propioetako akzio edo partaidetzen titular diren pertsonen edo entitate titularren izen-abizenak edo sozietatearen izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, urte bakoitzeko abenduaren 31n. Halaber, titular diren akzioen eta partaidetzen kopuruari eta motari buruzko informazioa emango da, bai eta haien

balio nominalari eta balioari buruzkoa ere, foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

- b) Merkatu antolatuetan negoziatutako berezko kapitaletan hirugarren batzuei lagatakoaren balio adierazgarrien titular diren pertsonen edo erakunde titularren izen-abizenak, edo sozietatearen izena, edo deitura osoa, eta haren identifikazio fiskaleko zenbakia urte bakoitzeko abenduaren 31n. Halaber, titulartasunpean dituzten balore kopuru eta motari buruzko informazioa emango da, haien balioaren gaineko informazioa bezala, foru dekretu honetako Lehenengo Xedapen Gehigarrian xedatutakoari jarraiki.

2. (9) Inbertsio kolektiboko entitateen sozietate kudeatzaileek, Europako arrisku kapitaleko funtsen, Europako gizarte ekintzailetzako funtsen edo Europako epe luzerako inbertsio funtsen entitate kudeatzaileek, Espainiako entitate merkaturatzaileek eta zerbitzuak libre emateko araubidean diharduten entitate kudeatzaileen ordezkariak honako datu hauek eman behar dizkiote Zerga Administrazioari, urteko aitorpena aurkeztuta: abenduaren 31n inbertsio kolektiboko entitateen kapitaleko edo ondare funtseko akzio edo partaidetzen edo Europako arrisku kapitaleko funtsen, Europako gizarte ekintzailetzako funtsen edo Europako epe luzerako inbertsio funtsen titular izan diren pertsona eta entitateen izen-abizenak edo sozietate izenak edo izen osoak eta identifikazio fiskaleko zenbakiak. Horiez gainera titular bakoitzaren akzioen eta partaidetzen kopurua eta motak zehaztu behar dira eta, behar izanez gero, zein taldetakoak diren ere bai, eta abenduaren 31n izan duten likidazio balioa adierazi behar da. Espainiako inbertsio kolektiboko entitateen akzioen edo partaidetzak mugaz gaindi merkaturatzen badira edo Europako arrisku kapitaleko funtsak, Europako gizarte ekintzailetzako funtsak edo Europako epe luzerako inbertsio funtsak merkaturatzen badira, ez-egoiliar diren beste batzuen kontura akzio edo partaidetzen titular ageri den atzerriko entitate merkaturatzaileak eman behar du informazioa, urtarrilaren 12ko 3/2016 Foru Dekretuak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duenak, lehenengo xedapen gehigarrian ezartzen duenarekin bat etorriz. Hala ere, sozietate kudeatzaileak edo inbertsio sozietateak erantzukizuna eduki dezake Zerga Administrazioarekin lehenengo xedapen gehigarri horretan xedatzen denaren arabera.

Inbertsio kolektiboko entitateen akzioak edo partaidetzak bigarren mailako merkatu batean edo baloreak negoziatzeko sistema antolatu batean negoziatzeko onartuta badaude, akzioak edo partaidetzak gordailatuta dituen entitateari dagokio aurreko paragrafoan aipatutako informazio betebeharra.

3. (8) (14) Aseguru erakundeek, helbidea Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batean izanik Espainian zerbitzugintza askearen araubidean diharduten aseguru erakundeak barnean direla, zein finantza erakundeek, urteko aitorpena aurkeztu beharko dute, eta bertan bildu beharko dute jarraian adieraziko den informazioa:

- a) Bizi-aseguru bat abenduaren 31n kontratatuta duten pertsonen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, egun horretan duen erreskate balioa adierazita, edo, hala badagokio, hornidura matematikoak abenduaren 31n duen balioa adierazita, Ondarearen gaineko zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 19. artikuluaen Bat apartatua xedatutakoaren arabera.

b) Kapital bat dirutan, ondasun higigarritan edo higiezinetan ematearen ondorioz abenduaren 31n aldi baterako edo biziarteko errenta baten onuradun diren pertsonen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, data horretan duen kapitalizazio balioa adierazita, Ondarearen gaineko zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 19. artikulua Bi apartatua xedatutakoaren arabera.

Bizi-aseguru baten ondorioz aldi baterako edo biziarteko errentak jasotzen badira, abenduaren 31n errentaren hartzailearen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia jakinaraziko dira, salbu eta aseguruaren hartzailea ez bada errentaren hartzailea eta erreskate eskubidea mantentzen badu; kasu horretan, hartzailearen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia jakinaraziko dira aipatutako egunean.

Aurreko paragrafoan xedatutako kasuetan, abenduaren 31ko erreskate balioa adieraziko da edo, hala badagokio, data horretako hornidura matematikoaren balioa, Ondarearen gaineko zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 19. artikulua xedatutakoaren arabera.

4. Artikulu honetan aurreikusi diren aitorpenak urtero aurkeztu beharko dira, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak zehazten dituen toki, modu eta epean. Bertan, aurreko urte naturalari buruzko informazioa bildu beharko da.

5. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia eman ez duten kontu edo beste eragiketa batzuen titularrei buruzko informazio betebeharra.

1. Identifikazio fiskaleko zenbakiari eta haren osaerari buruzko betebeharrak arautzen dituen 71/2008 Foru Dekretuko 12. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorriz, kreditu erakundeek hiru hiletik behin jakinarazi beharko dizkiote zerga Administrazioari zeintzuk diren identifikazio fiskaleko zenbakirik eman ez duten edo artikulu horretan ezarritako epea igarota jakinarazi duten titularren kontu edo eragiketak, kontu edo eragiketa horiek baliogabetu egin badira ere.

2. Aitorpenean datu hauek adierazi behar dira, gutxienez:

a) Pertsona edo erakunde bakoitzaren izen-abizenak edo sozietatearen izena eta helbidea, eta beharrezkoa denean identifikazio fiskaleko zenbakia ere bai.

b) Kontuaren edo eragiketaren izaera edo mota eta zenbakia, eta saldoa edo zenbatekoa.

3. Artikulu honetan adierazitako informazioa biltzen duen aitorpena hiruhileko natural bakoitzaren hurrengo hilabetearen barruan aurkeztu behar da, eragindako kontu edo eragiketei dagokienez eta identifikazio fiskaleko zenbakia emateko epe baliaduna hiruhileko horretan amaitu bada. Hala eta guztiz ere, ordenagailuak zuzenean irakur dezakeen euskarrian edo bide telematikoan erabilia aurkezten bada, urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoari dagokiona otsailaren 20ra arte aurkeztu ahalko da.

Hala eta guztiz ere, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak aitorpenak aurkezteko epeak aldarazi ahalko ditu Foru Agindu bidez.

6. artikulua. Kreditu erakundeek igorritako txekeei buruzko informazio betebeharra.

1. Identifikazio fiskaleko zenbakiari eta haren osaerari buruzko betebeharrak arautzen dituen 71/2008 Foru Dekretuko 12. artikuluko 4. idatz zatian aurreikusitakoarekin bat etorritik, kreditu erakundeek urtero jakinarazi beharko diote zerga Administrazioari diru, ondasun, balore edo beste txeke batzuk ematearen truke igortzen dituzten txekeei buruzko informazioa. Salbuespena bankuko kontu baten truke igorritako txekeak izango dira.

Halaber, kreditu erakundeek emaniko kontuan gabe eskudirutan ordaindutako txekeei buruzko informazioa ere eman behar diote Administrazioari, bai eta beste pertsona batek emandako 3.000 eurotik gorako balioko txekeei buruzko informazioa ere.

2. Eragin hauetarako, kreditu erakundeek ondoko datuak jasotzen dituen aitortpena aurkeztu behar dute:

- a) Txeke bakoitzaren hartzailearen edo, bestela, dirua kobratu duten pertsonen izen-abizenak edo erakundeen izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- b) Txeke bakoitzaren serie zenbakia eta zenbatekoa; bereizi egin behar dira erakundeak emandako txekeak eta ordainduak. Gainera, beste kreditu erakunde batzuek eta beste pertsona batzuek emandako 3.000 eurotik gorakoak ere bereizi behar dira.

3. Artikulu honetan aurreikusi diren aitortpenak urtero aurkeztu beharko dira, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak zehazten dituen toki, modu eta epean. Bertan, aurreko urte naturalari buruzko informazioa bildu beharko da.

7. artikulua. Aktibo finantzarioekin burututako eragiketa jakin batzuei buruzko informazio betebeharra.

1. Zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharra izango dute hurrengoek, urtero aktibo finantzarioekin burututako eragiketa jakin batzuen aitortpena aurkeztuz artikulu honetan ezarritako baldintzei jarraiki:

- a) [\(9\)](#) Fede-emaile publikoek, inbertsio kolektiboko entitateen sozietate kudeatzaileek, Europako arrisku kapitaleko funtsen, Europako gizarte ekintzailetzako funtsen edo Europako epe luzerako inbertsio funtsen entitate kudeatzaileek, inbertsio funtsetak opartaidetzak merkaturatzen dituzten entitateek, krediturako finantza entitate eta establezimenduek, baloreen sozietate eta agentziek, gainerako finantza bitartekariak eta pertsona fisiko eta juridiko guztiek, pertsona fisikoen gaineko zergari, sozietateen gaineko zergari eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko foru arauetan eta arlo honetako xedapenak ezartzen dituzten gainerako arau guztietan ezartzen denarekin bat etorritik.
- b) Merkatu antolatuan kotizatu ez diren titulu edo balore izendunen igorle diren erakundeek, haiek burututako igorpen eragiketei dagokienez eta Balore Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legeko 109. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta aukera eta etorkizuneko merkatuak arautzen dituzten sozietateek,

merkatu horietan egindako eragiketei dagokienez eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Egoiliarren Ez direnen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen araudian bitarteko finantzarioetarako ezarritako baldintzei jarraiki.

- c) Baloreen Erregistro, Konpentsazio eta Likidazio Sistemak Kudeatzeko Sozietateak, edo Estatuko Zorraren harpidetza, eskualdaketa eta ordainketan esku hartzen duten kudeaketa erakundeek, hura kontuko idazpenetan irudikatzen bada eragiketa horiei dagokienez, eta, hala badagokio, etekinei dagokienez.

2. Artikulu honetan ezarritako informazio betebeharra betetze aldera, inbertsio kolektiboko erakundeen kudeatzaile diren sozietateek, edo aurreko 1. idatz zatiko a) letrak aipatutako kapital aldagarriko inbertsioen sozietateek edo aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatutako erakundeek eragiketa batean esku hartzen dutenean, 1. idatz zatiko a) letrak aipatutako fede emaile edo bitartekari finantzarioekin batera, esku hartzen duen fede emaile edo bitartekari finantzarioak egin beharko du informazioa jasotzen duen aitorpena.

Atzerrian igorritako baloreak edo atzerrian eraturiko tresna eratorriak badira, aitorpena baloreok Espainian merkaturatzen dituzten erakundeek eta zerbitzugintza askearen araubidean jarduteko duten erakunde kudeatzaileen ordezkariak egin behar dute, edo, bestela, Espainian balore horiek gordailatuta dituzten erakundeek.

(11) Harpidetza eskubideekin lotutako eragiketei dagokienez, balio horien Espainiako erakunde gordailuzainari dagokio aitorpena egitea, eta horrelakorik ez badago, finantza bitartekariak edota eragiketean parte hartu duen fede emaile publikoak egingo du.

3. 1. idatz zatian aipatutako informazio betebeharrak Estatuko lurraldetik kanpo eta Espainiako lurraldeko egoiliar diren edo bertan establezimendu iraunkorra duten bitartekariak euren kabuz edo besteren kontura esku hartuz egindako eragiketen eta kontratuen berri emateari heltzen dio.

4. 1. idatz zatiak aipatutako zergapekoek hurrengo informazioa eman beharko diote zerga Administrazioari: eragiketetan esku hartu duten subjektuen identifikazio osoa, zer gisa esku hartu duten eta parte hartze portzentajea, haien izen-abizenak edo sozietatearen izena edo deitura osoa, helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eragiketa bakoitzeko efektu publiko, balore, titulu eta aktiboen mota eta kopurua, eta eragiketa bakoitzaren zenbatekoa eta data.

5. Atxikipenpean jarritako eragiketei dagokienez, artikulu honetan ezarri den informazio betebeharra bete dela ulertuko da kasuan kasuko atxikipenen urteko laburpena aurkezten denean.

6. 4. idatz zatiak adierazitako informazio betebeharraren kaltetan izan gabe, maileguaren xede diren baloreak negoziatzen diren merkatuko konpentsazioaren eta likidazioaren kasuan kasuko sistemako parte hartzaile edo kide diren erakundeek, baloreen mailegu eragiketetan parte hartzen duten edo bitartekari diren finantza erakundeek eta Baloreen Erregistro, Konpentsazio eta Likidazio Sistemak Kudeatzeko Sozietateak edo, hala badagokio, Balore Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1998 Legeko 31. artikuluko 4. idatz zatian araututako baloreen negoziazioaren merkatu edo sistema

antolatuen erregistro, konpentsazio eta likidazio lanak egiten dituen erakundeak eman egin beharko diote zerga Administrazioari Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloetako neurri buruzko abenduaren 30eko 62/2003 Legeko Hemezortzigarren Xedapen Gehigarriko 3. idatz zatian jasotako informazioa.

7. Artikulu honek aipatutako aitorenak jasotzen duen informazioa Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak zehazten duen toki, modu eta epean aurkeztu beharko da.

8. artikulua. Informazioa betebeharra.

1. Zerga administrazioari foru dekretu honen 7. artikuluan aipatzen den informazioa eman behar diotenek informazioa aurkeztu beharko dute finantza bitartekarien inbertsio koefiziente, baliabide propio eta informazio betebeharrei buruzko maiatzaren 25eko 13/1985 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako araubidea duten lehentasuneko partaidetzekin eta beste zor tresna batzuekin egindako eragiketen inguruan. Eman beharreko informazioa foru dekretu honetako 7. artikuluko 4. idatz zatian bildutakoa izango da, eta betebeharra duten horien bitartekaritzarekin lehentasuneko partaidetza eta beste zor tresna horiekin egindako eragiketei buruzkoa izango da.

2. Artikulu honetan aipatutako informazio betebeharra betetze aldera, foru dekretu honen 7. artikuluko 5. idatz zatian ezarritakoa aplikatuko da.

3. Artikulu honetan aurreikusi diren aitorenak urtero aurkeztu beharko dira, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak zehazten dituen toki, modu eta epean. Bertan, aurreko urte naturalari buruzko informazioa bildu beharko da.

9. artikulua. (3) Informazio araubidea Estatuaren Zor Publikoarekin, lehentasuneko partaidetzekin eta beste zor tresna batzuekin egindako eragiketen inguruan.

1. Artikulu honetan xedatutakoa ondoko etekinei aplikatuko zaie:

- a) Idazpenetako Zor Publikoaren Merkatuan negoziaturiko Estatuaren Zor Publikoaren balioen interesak eta deskontuan edo bananduta jaulkita, izaera bereko balioetatik eratorritako beste etekin batzuk.
- b) Bitartekari finantzarioen inbertsio koefizienteei, baliabide propioei eta informazio betebeharrei buruzko maiatzaren 25eko 13/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututako balioen interesak eta deskontuan, hamabi hilabete edo gutxiagoko epean, xedapen honetan jasotako zor tresnetatik eratorritako etekinak.

2. Estatuaren Zor Publikoari dagokionez, jaulkitzaileak edo bere ordainketa agente baimenduak idazpenetako zor publikoaren merkatuko erakunde kudeatzaileei eta balioen konpentsazio eta likidazio sistemak kudeatzen dituzten erakundeei, egoitza atzerrian edukita, egoitza Espainian duen balioen konpentsazio eta likidazioko erakunde batekin hitzarmena badute, hirugarrenen kontuetan ondoko hauen alde erregistratuta dituzten balioen etekinak ordainduko dizkie epemuga bakoitzean eta zenbateko osoa:

- a) Espainian establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarak.
- b) Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak eta Espainian establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarak.
- c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak, banandutako kupoiei eta banandutako printzipalei dagokienez, ordainketan erakunde kudeatzaile batek parte hartzen duenean.

Halaber, oso-osorik ordainduko dira idazpenetako zor publikoaren merkatuan kontuaren titularren kontu propioan erregistratuta dauden saldoen etekinak.

3. 2. idatz zatian jasotakoaren ondorioetarako, erakunde kudeatzaileek eta atzerrian egoitza duten balioen konpentsazio eta likidazio sistemen erakunde kudeatzaileek, idatz zati horretan aipatuak, aitorten bat aurkeztu beharko diote jaulkitzaileari, hala badagokio Espainiako Bankuaren bidez, foru dekretu honen I. eranskinean jasotzen den ereduaren arabera. Bere erregistroetan ezartzen denarekin bat etorrira, informazio hau jaso behar du:

- a) Balioen identifikazioa.
- b) Etekinen zenbatekoa, guztira.
- c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagozkien etekinen zenbatekoa, salbu eta Estatuaren Zor Publikoko banandutako kupoiak eta banandutako printzipalak badira, horien ordainketan erakunde kudeatzaile batek parte hartzen duenean.
- d) 2. idatz zatian jasotakoaren arabera osorik ordaindu behar diren etekinen zenbatekoa.

Aitorten hori ez da aurkeztu beharko Altxorraren Letrak direnean, ez erakunde kudeatzaileek Estatuaren Zor Publikoko banandutako kupoiei eta banandutako printzipalei dagokienean.

4. 1 b) idatz zatiko balioen kasuan, Espainian egoitza duen balioen konpentsazio eta likidazio erakunde batean erregistratuta daudenean jatorrian, aitorten hori 3. idatz zatian jasotakoaren arabera aurkeztuko dute hirugarrenen kontuetan erregistratutako balioak mantentzen dituzten erakundeek, bai eta atzerrian egoitza duten balioen konpentsazio eta likidazio sistemen erakunde kudeatzaileek ere, hitzarmena izenpetuta badaukate Espainian egoitza duen balioen konpentsazio eta likidazio erakunde horrekin.

2. idatz zatiko a) eta b) hizkietan aipatutako titularren etekinak ere oso-osorik ordainduko dira.

Halaber, oso-osorik ordainduko dira erakunde gordailuzainen kontu propioan erregistratuta dauden saldoen etekinak.

5. 1 b) idatz zatiko balioak direnean, atzerrian egoitza duten balioen konpentsazio eta likidazio sistemen erakunde kudeatzaileetan erregistratuta jatorrian, Espainiako edo ELGAko kide den beste herrialde bateko araudiak onartuta ondorio hauetarako, jaulkitzaileak izendatutako ordainketa agenteak aitorpen bat aurkeztu beharko dio jaulkitzaileari, foru dekretu honen I. eranskineko ereduari egokitua, atzerrian egoitza duten balioen konpentsazio eta likidazio sistemen erakunde kudeatzaile bakoitzari dagozkion balioen identifikazioaren eta etekinen zenbateko osoaren berri emanez, oso-osorik ordainduko direnak.

6. Aurreko idatz zatietan aipatutako aitorpenak interesen epemugaren aurreko egun baliodunean aurkeztuko dira edo, deskontuan edo bananduta jaulkitako balioen kasuan, balioen amortizazio bakoitzaren egunaren aurreko egun baliodunean, merkatuaren itxieraren egun horren egoera jasota. Aitorpen horiek bide telematikoez bidali ahal dira.

Deskontuan edo bananduta jaulkitako balioak direnean, etekinen informazioa ordaindu beharreko zenbatekoei buruzko informazioarekin ordeztuko da. Dena den, balio horien amortizaziotik sortutako etekinei dagokienez, atxikipena badute, aitorpenean etekin horien zenbatekoa ere sartuko da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuan, aitorpena jaulkitzaileari edo, hala behar izanez gero, jaulkitzaileak amortizazioa edo ordainketa gauzatzeko ardura eman dion erakunde finantzarioan aurkeztu beharko da.

7. Interesen epemugaren kasuan, artikuluko honek aipatzen duen aitorpena aurkezten ez badu aurkeztu beharra duen erakunderen batek 6. idatz zatiko lehenengo paragrafoan aurreikusitako egunean, jaulkitzaileak edo bere ordainketa agente baimenduak erakunde horri dagozkion interesak ordaindu beharko dizkio, hain zuzen, atxikipen tasa orokorra horiei guztiei aplikatuzetik sortzen den zenbateko likidoa.

Gero, interesen epemugatik hogeita hamar eguneko epearen barruan, Estatuaren Zor Publikoa bada, edo artikuluko honetako 1 b) idatz zatiak jasotzen dituen balioetatik sortutako interesak mugaeguneratzen diren hurrengo hileko 10a baino lehen, aitorpena aurkeztu beharra duen erakundeak artikuluko honetan arautzen den aitorpena aurkezten badu, jaulkitzaileak edo bere ordainketa agente baimenduak jaso bezain laster ordainduko ditu atxikitako soberakinak.

8. Aurreko idatz zatietan jasotako guztia aplikatuko da zerga araudian oro har jaulkitzaileei eta Espainian egoitza edukita, artikuluko honetako 1. idatz zatiak aipatutako balioen gordailuzain modura jarduten duten bitartekari diren erakundeei finkatutako informazio betebeharren kalterik gabe, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunei, Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboiei eta Espainian egoitza iraunkorra duten ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, balioen titularrak badira, erakundeen erregistroetan jasotzen denaren arabera.

10. artikulua. (6b)

11. artikulua. [\(6b\)](#)

12. artikulua. [\(6b\)](#)

13. artikulua. [\(6b\)](#)

14. artikulua. [\(6b\)](#)

15. artikulua. Erakundeak eratu, ezarri, aldarazi edo deuseztatu izanari buruzko informazio betebeharra.

Erregistro publikoetako titularrek informazio aitortpena aurkeztu beharko diote hilerio zerga Administrazioari. Bertan, aurreko hilabetean inskribatutako enpresa eraketa, ezarpen, aldarazpen edo deuseztatzeak jasoko dira.

16. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi ez duten edo notarioen esku hartzea duten egintza edo kontratuak jasotzen dituzten eskriturak edo dokumentuak egiterakoan erabilitako ordainketa moduak identifikatu ez dituzten pertsonen edo erakundeen buruzko informazio betebeharra.

1. Notariotzaren Kontseilu Nagusiak informazio aitortpena aurkeztu beharko dio hilerio zerga Administrazioari bide telematikoa erabilita. Bertan, bertaratu diren izen-abizenak edo egintzak edo kontratuak formalizatzearen eskritura edo dokumentuak igortzerakoan ordezkari diren pertsona edo erakundeen izenak, eskritura edo dokumentu horien xedea ondasun higiezinaren gaineko jabaria eta gainerako eskubide errealak aitortu, eratu, eskuratu, eskualdatu, aldarazi edo deuseztatzea edo zerga garrantzia duen beste edozein egintza edo kontratu bada eta horietan hurrengo inguruabarrak agertzen badira:

- a) Identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi ez izana.
- b) Alderdiek erabilitako ordainketa moduak identifikatu ez izana, kontraprestazio osoa edo zati bat dirua edo hura ordezkatzeko duena izan bada.

2. Informazio aitortpen bakoitza hilabetea amaitu aurretik aurkeztuko da, eta aurreko hilabetean egindako eragiketak bilduko ditu.

17. artikulua. Nekazaritzako, abeltzaintzako edo basogintzako jarduerak buruztik eratorritako dirulaguntzen edo kalte ordainen berri eman beharra.

1. Nekazaritzako, abeltzaintzako edo basogintzako jarduerak gauzatzetik eratorritako dirulaguntzak, kalte ordainak edo laguntzak ematen edo onartzen dituzten erakunde publiko edo pribatuak behartuta egongo dira zerga Administrazioari urteko aitortpena aurkeztera, bertan aurreko urtean kitatutako edo ordaindutako kopuruak jasoz.

Erakunde emaileak egoitza Espainian ez duenean, aurreko paragrafoko betebeharra erakunde haren konturako dirulaguntzen, kalte ordainen edo laguntzen kudeaketaren ardura duen erakunde egoiliarrek bete beharko du.

2. Aitorpenean, aitorlearen identifikaziorako datuez eta aitorpenean sartutako dirulaguntzei, kalte ordainei edo laguntzei dagokienez esku hartzearen izaeraz gain, hartzaileen zerrenda izenduna jaso beharko da hurrengo datuekin:

- a) Izen-abizenak, edo sozietatearen izena, edo deitura osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- b) Kitatutako edo ordaindutako dirulaguntzaren, kalte ordainaren edo laguntzaren zenbatekoa, mota eta kontzeptua.

3. Kasuan kasuko aitorpenean sartze aldera, dirulaguntza, kalte ordain edo laguntza hauek kitatu direla ulertuko da kasuan kasuko ordainketa agindua egiten den egunean. Ordainketa agindurik ez balego, ordainketa egiten denean joko dira kitatutzat.

4. Artikulu honetan aurreikusi den aitorpena urtero aurkeztu beharko da, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak zehazten dituen toki, modu eta epean. Bertan, aurreko urte naturalari buruzko informazioa bildu beharko da.

18. artikulua. Gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenei buruzko informazioa eman beharra.

Zerga Administrazioari aitorpena aurkeztu beharko diote urtero hurrengo pertsona edo erakundeek, adierazitako edukia barne hartuz:

- a) [\(14\)](#) Pentsio funtsak kudeatzen dituzten erakundeak. Banan-banan jasoko dira funts horiei atxikitako planetako partaideak eta haiek zuzenean, pertsona baimenduen edo plan horien sustatzaileen bidez egindako ekarpenen zenbatekoa.

Era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1238 (EB) Erregelamenduan araututako banakako pentsioen produktu paneuroparren sustatzaileak (erregelamendu hori banakako pentsioen produktu paneuroparrari (PEPP) buruzkoa da); banan-banan jasoko dituzte plan horietako aurreztaileak eta haiek PEPP kontu bakoitzaren azpikontuei egindako ekarpenen zenbatekoa.

Letra honetan aipatzen diren urteko aitorpenak urte bakoitzeko urtarrilean aurkeztuko dira, aurreko urte naturalari dagokionez, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saileko diputatuak zehazten duen tokian eta ereduaren arabera. Halaber, hark ezarri ahal izango du zer kasutan aurkeztu behar diren telematikoki.

Aurrekoa gorabehera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saileko diputatuak foru agindu bidez aldatu ahal du aitorpen horiek aurkezteko epea."

- b) Pentsio planen sustatzaileek horietan ekarpenak egiten badituzte; ekarpenak egin zituzten partaideak banaka jasoko dira, partaide bakoitzak jarritako zenbatekoa bezalaxe.

Letra honek aipatutako urteko aitortpena urte bakoitzeko urtarrean aurkeztuko da eta aurreko urteari buruzkoa izango da. Aurkezpena Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak esandako tokian eta ezarritako ereduari jarraiki egingo da. Hark aitortpena bide telematikotik aurkeztea nahitaezkoa zein inguruabarretan den ezarri ahalko du.

Hala eta guztiz ere, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak aitortpena aurkezteko epea aldarazi ahalko du Foru Agindu bidez.

- c) [\(8\)](#) Europar Batasuneko beste estatu kide batean helbideratutako pentsiofuntsek, Espainian bertako legerari atxikitako enpleguko pentsio planak garatzen badituzte; bertan, funts horietara atxikitako planen partaideak banaka jasoko dira, haiek egindako ekarpenaren zenbatekoa bezalaxe, ekarpenak haiek zuzenean egindakoak diren, baimendutako pertsonak egindakoak diren edo aipatutako plan horien sustatzaileek egindakoak diren alde batera utzita.
- d) [\(1\)](#) Pentsio konpromisoak aseguru kontratu baten bitartez (enpresen gizarte aurreikuspeneko planak salbu) antolatzen dituzten enpresek eta erakundeek; ekarpenen onuradun diren pertsonak eta bakoitzari dagokion zenbatekoa banaka sartu behar dituzte.
- e) Enpresako gizarte aurreikuspeneko planak formalizatzen dituzten aseguru erakundeek; aseguratuak banaka jasoko dira, horiei egindako ekarpenen zenbatekoa barne, horiek haiek zuzenean egindakoak izan edo plan horien hartzaileek egindakoak izan alde batera utzita.
- f) [\(14\)](#) Gizarte aurreikuspeneko mutualitateak; mutualistek gastu kengarritzat jotzen diren edo zergaren zerga-oinarrian murrizt daitezkeen kontingentziak estaltzeko ordaindutako zenbatekoak jasoko dituzte, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.

Letra honek aipatutako urteko aitortpena urte bakoitzeko urtarrean aurkeztuko da eta aurreko urteari buruzkoa izango da. Aurkezpena Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak esandako tokian eta ezarritako ereduari jarraiki egingo da. Hark aitortpena bide telematikotik aurkeztea nahitaezkoa zein inguruabarretan den ezarri ahalko du.

Hala eta guztiz ere, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak aitortpena aurkezteko epea aldarazi ahalko du Foru Agindu bidez.

- g) Mendetasuneko aseguru pribatuak merkaturatzen dituzten aseguru erakundeek, zerga oinarrian kenkariaren xede izan badaitezke; hartzaileak eta primen zenbatekoa jasoko dira, horiek haiek zuzenean egindakoak izan do baimendutako pertsonak egindakoak izan alde batera utzita.
- h) Aseguratutako aurreikuspen planak merkaturatzen dituzten aseguru erakundeak; hartzaileak eta kitatutako primen zenbatekoak banaka jasoko dira.
- i) Gizarte Aurreikuspeneko Boronatezko Erakundeek urteko aitortpena aurkeztu beharko dute, banaka zerrendatuz ohiko bazkideak edo bazkide zenbakidunak

nahiz ohiko bazkide horiek edo bazkide zenbakidunek nahiz bazkide babesleek egindako ekarpenen zenbatekoa.

Letra honek aipatutako urteko aitortpena urte bakoitzeko urtarrilean aurkeztuko da eta aurreko urteari buruzkoa izango da. Aurkezpena Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak esandako tokian eta ezarritako ereduari jarraiki egingo da. Hark aitortpena bide telematikotik aurkeztea nahitaezkoa zein inguruabarretan den ezarri ahalko du.

Hala eta guztiz ere, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak aitortpena aurkezteko epea aldarazi ahalko du Foru Agindu bidez.

- j) Gizarte Aurreikuspeneko Borondatezko Erakundeen bazkide babesleek, horiei ekarpenak egiten badizkiete, urteko aitortpena aurkeztu beharko dute. Bertan, ohiko bazkideak edo bazkide zenbakidunak zerrendatuko dituzte ekarpenak egin zituztenek eta baita ohiko bazkide edo bazkide zenbakidun bakoitzerako ekarritako zenbatekoa ere.

Letra honek aipatutako urteko aitortpena urte bakoitzeko urtarrilean aurkeztuko da eta aurreko urteari buruzkoa izango da. Aurkezpena Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak esandako tokian eta ezarritako ereduari jarraiki egingo da. Hark aitortpena bide telematikotik aurkeztea nahitaezkoa zein inguruabarretan den ezarri ahalko du.

Hala eta guztiz ere, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak aitortpena aurkezteko epea aldarazi ahalko du Foru Agindu bidez.

19. artikulua. Ondasun higiezinekin zerikusia duten finantza eragiketei buruzko informazioa emateko betebeharra.

1. Maileguak ematen dituzten edo ematerakoan bitartekari diren erakundeek, horiek hipoteka erakoak edo beste mota batekoak izan alde batera utzita, edo ondasun higiezin bat edo ondasun higiezin baten gaineko eskubide erreal bat eskuratzeko beste edozein finantzazio modutan esku hartzen dutenek, informazio aitortpena aurkeztu beharko dute urtero eragiketa horiei buruz. Bertan, hurrengo datuak bildu beharko dira:

- a) Izen-abizenak, edo sozietatearen izena, edo deitura osoa, eta mailegariaren identifikazio fiskaleko zenbakia.
- b) Sozietatearen izena edo deitura osoa, eta mailegu emaileen identifikazio fiskaleko zenbakia.
- c) Izen-abizenak, edo sozietatearen izena, edo deitura osoa, eta bitartekariaren identifikazio fiskaleko zenbakia, halakorik balego.
- d) Alderdien izen-abizenak, edo sozietatearen izena, edo deitura osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, ondasun higiezinaren erosketarekin edo ondasun higiezinaren gaineko eskubide errealaren erosketarekin zerikusi zuzena duten beste finantza eragiketetan.

- e) [\(1\)](#) Maileguaren edo eragiketaren guztirako zenbatekoa, eta urtean kapitalaren amortizazioagatik, korrituengatik eta gainerako finantza gastuengatik ordaindutako kopuruak.
- f) Maileguaren edo eragiketaren eraketa urtea eta iraunaldia.
- g) Eragiketaren hartzaileak higiezin hori ohiko etxebizitzarako erabiltzeko borondatea adierazi duen jakinaraztea.
- h) Katastro erreferentzia.
- i) Higiezinaren tasazio balioa.

2. Artikulu honek aipatutako aitorenak jasotzen duen informazioa Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak zehazten duen toki, modu eta epean aurkeztu beharko da.

[\(4\)](#) II. KAPITULUA

[\(4\)](#) ATZERRIAN DIREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN BERRI EMAN BEHARRA

20. artikulua. [\(4\)](#) Atzerriko finantza erakundeetan dauden kontuen berri eman beharra.

1. Arabako Lurralde Historikoan bizi diren pertsona fisikoek eta juridikoek, bertan bizi ez arren lurralde horretan kokatuta dauden pertsonen edo erakundeen establezimendu egonkorrek eta Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 35.3 artikulua aipatzen dituen erakundeek nahitaez aurkeztu beharko dute Arabako Foru Aldundian urteko informazio aitordua, euren titulartasuneko edo ordezkari, baimendu edo onuradun gisa dauden, edo dirua erabiltzeko ahalen bat duten, edo titular erreal diren kontu guztiei buruzkoa, hurrengo paragrafoan finkatutakoaren arabera, banku edo kreditu trafikoa aritzen diren atzerriko erakundeetan irekita badauzkate urte bakoitzeko abenduaren 31n.

Betebehar hori luzatzen zaie aitorduen urteko edozein momentutan kontu horien titular, ordezkari, baimendu edo onuradun izandakoei ere, bai eta horiek erabiltzeko ahalen bat eduki edo titular erreal izan direnei ere.

Ondorio horietarako, titular erreal izango da Kapitalak zurriztearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoaren arabera, 2. idatz zati horrek aipatzen dituen pertsona edo tresnen izenean dauden kontuen titular errealak dena, atzerrian badute egoitza edo atzerrian eratu badira.

2. Hauxe izango da Arabako Foru Aldundiari eman beharreko informazioa:

- a) Banku edo kreditu erakundearen sozietatearen izena edo izen osoa, eta helbidea.

- b) Kontuen identifikazio osoa.
- c) Ireki edo itxi den data, edo baimena eman edo kendu den data, hala badagokio.
- d) Kontuen saldoak abenduaren 31n eta urteko azken hiruhilekoaren batez besteko saldoa.

Eman beharreko informazioa hauexei dagokie: kontu korrante, aurrezki kontu, eperako ezarpen, kreditu kontu eta beste edozein kontu edo diru gordailuei, horien modalitatea edo izena edozein dela, ordainsaririk ez egon arren.

3. Kontuen saldoei, abenduaren 31n, eta urteko azken hiruhilekoaren batez besteko saldoari buruzko informazioa aurkeztu beharko du kontu horien titular, ordezkari, baimendu edo onuradunak, edo kontu horiek erabiltzeko ahalen bat duenak edo data horretan titular erreal denak.

Gainerako titular, ordezkari, baimendu edo onuradunek, edo kontu horiek erabiltzeko ahalen bat dutenek edo titular errealek jarri beharko dute kontuaren saldoa kontu horien dena delakoa izateari utzi zioten eguneko.

4. Artikulu honetan jasotzen den informazioa eman beharra ez zaie aplikatuko ondoko kontuei:

- a) [\(14\)](#) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 12. artikulua 1. apartatuan aipatzen diren erakundeentzako titulartasunekoak direnak.
- b) Horien titularrak badira Araban bizi diren pertsona juridiko eta gainerako erakundeak eta ez egoiliarren establezimendu egonkorak, kontabilitatean banaka erregistratuta eta irekita daudeneko zenbaki, kreditu erakunde eta sukurtsalarekin eta kokatuta dauden herrialde edo lurraldearekin identifikatuta.
- c) Horien titularrak badira Araban bizi diren pertsona fisikoak, baldin eta jarduera ekonomiko bat egiten badute eta horien kontabilitatea merkataritzaren kodean xedatutakoaren arabera bada, kontabilitateko dokumentazio horretan banaka erregistratuta eta irekita daudeneko zenbaki, kreditu erakunde eta sukurtsalarekin eta kokatuta dauden herrialde edo lurraldearekin identifikatuta.
- d) Horien titularrak badira Araban bizi diren pertsona fisiko, juridiko eta gainerako erakundeak, baldin eta Espainian helbidea duten atzerriko kreditu erakundeetan irekita badaude, eta erakunde horiek horien aitortua egin beharra badute foru dekretu honen 2. artikuluan jasotakoa betez, betiere aitortu ahal izan badira kontua dagoen herrialdearen araudiaren arabera.
- e) Ez da kontuaren berri eman behar, artikulu honetako 2. idatz zatiko d) letran aipatzen diren saldoek (abenduaren 31n) batuta ez badute gainditzen 50.000 euroak. Idatz zati berean aipatzen diren batez besteko saldoei gauza bera aplikatuko zaie. Goi muga batu horiek gaindituz gero, kontu guztien berri eman beharra egongo da.

5. Hurrengo urteetako aitortpena aurkeztu beharra egongo da baldin eta 4. idatz zatiko e) letran aipatzen diren saldo batuetako edozeinek 20.000 euro baino gehiagoko gehikuntza izan badu azken aitortpena aurkeztu beharra ekarri zutenen aldean.

Edonola ere, aitortpena aurkeztu beharra egongo da artikuluko honetako 3. idatz zatiko azken paragrafoan aurreikusitako kasuetan, bertan aipatzen diren kontuekiko.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartu egingo ditu horretarako aurkeztu beharko den aitortpen eredu bat, aurkezteko lekua eta epea eta, hala behar izanez gero, zein kasutan eta baldintza bete beharko den, ordenagailuz edo bide telematikoen bidez zuzenean irakur daitekeen euskarriz.

6. (14) Arabako zerga araudian xedatutako zehapen araubidea aplikatzeko, aurreko 2. apartatuko a) eta b) idatz zatietan, hurrenez hurren, aipatzen diren informazioak datu multzo desberdinak dira erakunde eta kontu bakoitzerako.

Ondorio berberetarako, datua izango da aurreko 2. idatz zatiko c) eta d) letretan aipatzen diren data eta saldoak, baita aurreko 3. idatz zatiko azken paragrafoan aipatzen den saldoa ere.

21. artikulua. (4) Atzerrian gordailutu, kudeatu edo lortutako balore, eskubide, asegaru eta errenten berri eman beharra.

1. Arabako Lurralde Historikoan bizi diren pertsona fisikoek eta juridikoek, bertan bizi ez arren lurralde horretan kokatuta dauden pertsonen edo erakundearen establezimendu egonkorrek eta Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35.3 artikulua aipatzen dituen erakundeek aurkeztu beharko dute Arabako Foru Aldundian urteko informazio aitortpena, atzerrian dituzten ondoko ondasun eta eskubideena, baldin eta urte bakoitzeko abenduaren 31n horien titular badira edo titular erreal badira Kapitalak zurriztearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoaren arabera:

- a) Edozein motatako erakunde juridikoen partaidetza adierazten duten balore edo eskubideak.
- b) Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten baloreak.
- c) Edozein tresna juridikori, kudeatu edo administratu ditzan, emandako baloreak; baita nortasun juridikorik eduki ez arren ekonomia trafikoan jardun ahal duten fideikomisoak eta "trust" edo ondare multzoak ere.

2. Informazio aitortpenak datu hauek jaso beharko ditu:

- a) Erakunde juridikoaren, hirugarrenaren-lagatzaillearen sozietatearen izena edo izen osoa edo tresnaren edo harreman juridikoaren identifikazioa, kasuan zein den, eta helbidea.
- b) Erakunde juridikoen kapitalaren edo funts propioen balore eta eskubide adierazgarrien saldoa, urte bakoitzeko abenduaren 31n.

Informazioak titular deneko akzio eta partaidetzen kopurua eta mota jasoko ditu, bai eta balioa ere.

- c) Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten baloreen saldoa abenduaren 31n.

Informazioak titular deneko baloreen kopurua eta mota jasoko ditu, bai eta balioa ere.

- d) Kasuan kasuko tresna juridikoari ekarritako baloreen saldoa abenduaren 31n.

Informazioak ekarritako baloreen kopurua eta mota jasoko ditu, bai eta balioa ere.

Informazioa eman beharra luzatzen zaio dagokion aitopeneko urteko edozein momentutan aurreko b), c) eta d) letretan aipatzen diren balore eta eskubideen titular edo titular erreal izandako zergapeko orori baldin eta horrelakoa izateari utzi badio urte horretako abenduaren 31n. Kasu hauetan, eman beharreko informazioa uzte hori gertatu zen datari egokituko zaio.

3. Aurreko 1. idatz zatian aipatzen diren zergapekoek Arabako Foru Aldundiari informazioa aurkeztu beharko diote urteko aitopenearen bidez, atzerriko inbertsio kolektiboko erakunde baten kapital sozialeko edo ondare funts propioetako akzioena edo partaidetzena baldin eta horien titular badira edo titular erreal badira Kapitalak zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoaren arabera.

Informazioak jaso beharko ditu inbertsio kolektiboko erakundearen sozietatearen izena edo izen osoa eta helbidea, bai eta akzio eta partaidetza kopurua eta mota eta, hala behar izanez gero, zein konpartimentutakoak diren, eta horien likidazio balioa abenduaren 31n.

Idatz zati honetan arautzen den informazioa eman beharra luzatzen zaio dagokion aitopeneko urteko edozein momentutan akzio eta partaidetzen titular edo titular erreal izandako zergapeko orori baldin eta horrelakoa izateari utzi badio urte horretako abenduaren 31n. Kasu hauetan, eman beharreko informazioa uzte hori gertatu zen datari egokituko zaio.

4. [\(14\)](#) Aurreko 1. idatz zatiak aipatzen dituen zergapekoek honako hauei buruzko urteko informazio aitopena aurkeztu beharko dute Arabako Foru Aldundian:

- a) Urte bakoitzeko abenduaren 31n jasotzaile diren bizi edo baliaezintasun aseguruak, aseguru etxeaatzerrian badago. Egun horretan duten erreskate balioa ere adierazi beharko dute.

Hala ere, abenduaren 31n hartzaileak ez badu erabateko erreskate eskubidea baliatzeko ahalmenik, data horretako hornidura matematikoaren balioa adieraziko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko heriotza edo baliaezintasun kasuetarako prestazioak edo bestelako arrisku berme osagarriak soilik jasotzen dituzten aldi baterako aseguruak.

b) Abenduaren 31n onuradun diren aldi baterako edo biziarteko errentak, horien jatorria bada atzerrian dauden erakundeei eman izana kapitala dirutan, eduki ekonomikoko eskubideak edo ondasun higigarri edo higiezinak. Egun horretan duten kapitalizazio balioa ere adierazi beharko dute.

Hala ere, errenta horiek bizi-aseguru batetik datozenean, aurreko a) letran ezarritako balioa adieraziko da. Aseguruaren hartzailea ez bada errentaren onuraduna eta erreskate eskubideari eusten badio, hartzaileak emango dio informazio hori zerga administrazioari.

Aurreko a) eta b) paragrafoetan aipatutako kasuetan, aseguru etxea identifikatu beharko da, adierazita sozietatearen izena edo izen osoa eta helbidea.

5. Artikulu honetan jasotzen den informazioa eman beharra ez da bete beharko ondoko kasuetan:

a) [\(14\)](#) Zergapekoa Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 12. artikuluan 1. apartatuan aipatzen diren erakundeetako bat denean.

b) Zergapekoa Araban bizi den pertsona juridikoa edo erakundea bada edo ez egoiliarren establezimendu egonkorra bada, eta bere kontabilitatean banaka baditu erregistratuta artikulu honetan aipatzen diren balore, eskubide, aseguru eta errentak.

c) [\(14\)](#) Aurreko 2. idatz zatiko b), c) eta d) letrak aipatzen dituzten baloreak, 3. idatz zatiak aipatzen duen likidazio balioa, 4. idatz zatiko a) letrak aipatzen duen erreskate balioa edo hornidura matematikoa eta 4. idatz zatiko b) letrak aipatzen duen kapitalizazio balioa ez badira batuta 50.000 euro baino gehiago. Goi muga batu hori gaindituz gero, titulu, aktibo, balore, eskubide, aseguru edo errenta guztien berri eman beharra egongo da.

6. Hurrengo urteetako aitortpena aurkeztu beharra egongo da baldin eta 5. idatz zatiko c) letran aipatzen diren balore guztien balio batuak 20.000 euro baino gehiagoko gehikuntza izan badu azken aitortpena aurkeztu beharra ekarri zuenaren aldean.

Nahitaezko izango da aitortpena aurkeztea 2. idatz zatiko azken paragrafoan eta 3. idatz zatiko azken paragrafoan aipatutako kasuetan, hain zuzen, balore, eskubide, akzio eta partaidetzei dagokiena, abenduaren 31n galdu bada horien titulartasuna.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartu egingo ditu horretarako aurkeztu beharko den aitortpen eredu bat, aurkezteko lekua eta epea eta, hala behar izanez gero, zein kasutan eta baldintza bete beharko den, ordenagailuz edo bide telematikoen bidez zuzenean irakur daitekeen euskarriz.

7. [\(5\)](#) Martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauak, ondarearen gaineko zergarenak, araututakoaren arabera kalkulatuta jakinaraziko dira artikulu honen paragrafoek aztergai dituzten balorazioak. Horiek horrela, ez da aplikatuko foru arau horren 18.1.2 artikuluan xedatutakoa, kontabilitateak ondarearen, finantza egoeraren eta partaidetutako erakundearen emaitzen irudi zuzena islatzen duenean.

8. (14) Arabako zerga araudian xedatutako zehapen araubidea aplikatzeko, datu multzotzathartzen dira 2. apartatuko a) letran eta aurreko 3. eta 4. apartatuetan aipatutako erakunde juridiko, hirugarren lagapen-hartzaile, tresna edo harreman juridiko, inbertsio kolektiboko erakunde eta aseguru erakunde bakoitzaren identifikazioari eta helbideari buruzkoak.

Ondorio berberetarako, datua izango da artikuluko honetako aurreko idatz zatietan ondare elementu banakatu mota bakoitzerako eskatutako informazioa, ondoan azaltzen denaren arabera:

- a) 2. idatz zatiko b) letran, akzio eta partaidetza mota bakoitzeko.
- b) 2. idatz zatiko c) letran, balore mota bakoitzeko.
- c) 2. idatz zatiko d) letran, balore mota bakoitzeko.
- d) 3. idatz zatian, akzio eta partaidetza mota bakoitzeko.
- e) 4. idatz zatiko a) letran, bizi aseguru bakoitzeko.
- f) 4. idatz zatiko b) letran, aldi baterako edo biziarteko errenta bakoitzeko.

Datua ere izango da 2. idatz zatiko eta 3. idatz zatiko azken paragrafoan aipatzen diren saldoak, balore mota bakoitzeko eta akzio eta partaidetza mota bakoitzeko, hurrenez hurren.

22. artikulua. (4) Atzerriko ondasun higiezinaren eta ondasun higiezinaren gaineko eskubideen berri eman beharra.

1. Arabako Lurralde Historikoan bizi diren pertsona fisikoek eta juridikoek, bertan bizi ez arren lurralde horretan kokatuta dauden pertsonen edo erakundearen establezimendu egonkorrek eta Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35.3 artikulua aipatzen dituen erakundeek aurkeztu beharra izango dute Arabako Foru Aldundian urteko informazio aitortzea, atzerrian dituzten ondasun higiezinaren eta ondasun higiezinaren gaineko eskubideena, baldin eta urte bakoitzeko abenduaren 31n horien titular badira edo titular erreal badira Kapitalak zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoaren arabera.

2. Informazio aitortzenak datu hauek jasotzeko behar dituzte:

- a) Ondasun higiezinaren identifikazioa, tipologia azalduta laburki.
- b) Ondasun higiezinaren kokapena: herrialdea edo lurraldea, herria, kalea eta zenbakia.
- c) Erosketa data.
- d) Erosketa balioa.

3. Atzerriko ondasun higiezinaren gainean jabetza anitzeko kontratuen bitartez, txandakako aprobetxamenduz, aldi baterako jabetza kontratuen bitartez edo antzeko formulen bitartez izanez gero titularra, aurreko idatz zatiko a) eta b) letretan aipatutako informazioaz gain, eskubide horiek noiz eskuratu ziren jaso beharko da, bai eta horien balioa ere abenduaren 31n, ondarearen gaineko zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan finkatutako balorazio arauen arabera kalkulatuta.

4. Atzerriko ondasun higiezinaren gaineko erabiltzeko eta gozatzeko eskubide errealak eta jabetza soilak izanez gero, aurreko 2. idatz zatiko a) eta b) letretan aipatutako informazioaz gain, titulartasun hori noiz eskuratu zen jaso beharko da, bai eta horren balioa ere abenduaren 31n, ondarearen gaineko zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan finkatutako balorazio arauen arabera kalkulatuta.

5. Artikulu honetan arautzen den informazioa eman beharra luzatzen zaio aurreko 1. idatz zatian aipatzen denaren arabera dagokion aitortzeko urteko edozein momentutan ondasun higiezinaren edo eskubidearen titular edo titular erreal izandako zergapeko orori baldin eta horrelakoa izateari utzi badio urte horretako abenduaren 31n. Kasu hauetan, aurreko 2. idatz zatian aipatzen diren datuez gain, informazio aitortzeko ondasun higiezinaren edo eskubidearen eskualdatze balioa eta horren data jaso beharko ditu.

6. Artikulu honetan jasotzen den informazioa eman beharra ez zaie aplikatuko atzerriko ondoko ondasun higieziari edo ondasun higiezinaren gaineko eskubideei:

- a) [\(14\)](#) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 12. artikuluan 1. apartatuan aipatzen diren erakundearen titulartasunekoak direnak.
- b) Horien titularrak Araban bizi diren pertsona juridikoak eta gainerako erakundeak eta ez egoiliarren establezimendu egonkorrak badira, kontabilitatean banaka erregistratuta eta nahiko identifikatuta.
- c) Horien titularrak Araban bizi diren pertsona fisikoak badira, eta jarduera ekonomiko bat egin eta horien kontabilitatea merkataritzaren kodean xedatutakoaren arabera bada, kontularitzako dokumentazio horretan banaka erregistratuta eta nahiko identifikatuta.
- d) Ez da ondasun higiezinaren edo ondasun higiezinaren gaineko eskubidearen berri eman beharra izango, artikulu honetako 2. idatz zatiko d) letrak eta 3. eta 4. idatz zatiek aipatutako baloreak ez badira batuta 50.000 euro baino gehiago. Goi muga batu hori gaindituz gero, ondasun higiezinaren edo ondasun higiezinaren gaineko eskubide guztien berri eman beharra egongo da.

7. Hurrengo urteetako aitortzea aurkeztu beharra egongo da baldin eta aurreko 6. idatz zatiko d) letran aipatzen den balio batuak 20.000 euro baino gehiagoko gehikuntza izan badu azken aitortzea aurkeztu beharra ekarri zuenaren aldean.

Nahitaezko izango da aitortzea aurkezteko 5. idatz zatian aipatutako kasuetan, hain zuzen, ondasun higieziari eta eskubideei dagokiena, abenduaren 31n galdu bada horien titulartasuna.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartu egingo ditu horretarako aurkeztu beharko den aitorten eredu bat, aurkezteko lekua eta epea eta, hala behar izanez gero, zein kasutan eta baldintza bete beharko den, ordenagailuz edo bide telematikoen bidez zuzenean irakur daitekeen euskarriz.

8. (14) Arabako zerga araudian xedatutako zehapen araubidea aplikatzeko, hainbat datu multzoosatzen dituzte artikuluko honen 2. apartatuaren a) eta b) letretan aipatzen diren informazioek, apartatu horretan aipatzen diren higieziei dagokienez, eta aurreko 3. eta 4. apartatuetan aipatzen diren eskubideak dituzten higieziei dagokienez.

Ondorio berberetarako, datua izango dira ondoko hauek:

- a) 2. idatz zatiko c) eta d) letrek aipatzen dituzten datak eta balioak, ondasun higiezin bakoitzari dagokienez.
- b) 3. idatz zatiak aipatzen dituen datak eta balioak, eskubide bakoitzari dagokienez.
- c) 4. idatz zatiak aipatzen dituen datak eta balioak, eskubide bakoitzari dagokienez.
- d) 5. idatz zatiak aipatzen dituen eskualdatze datak eta balioak, ondasun higiezin bakoitzari dagokienez.

23. artikulua. (4) Atzerrian kokatuta dauden, edo matrikulatuta edo bertako erregistroetan dauden ondasun higigarrien eta ondasun higigarrien gaineko eskubideen berri eman beharra.

1. Arabako Lurralde Historikoan bizi diren pertsona fisikoek eta juridikoek, bertan bizi ez arren lurralde horretan kokatuta dauden pertsonen edo erakundeen establezimendu egonkorrek eta Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 35.3 artikulua aipatzen dituen erakundeek aurkeztu beharko dute Arabako Foru Aldundian urteko informazio aitortpena, ondoko ondasun eta eskubideena, baldin eta urte bakoitzeko abenduaren 31n horien titular badira edo titular erreal badira Kapitalak zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legearen

4. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoaren arabera:

- a) Ondasun higigarriak eta horien gaineko eskubideak, horien unitate balioa 50.000 euro baino gehiago bada eta atzerrian badaude edo egon badira.
- b) Ondasun higigarriak eta horien gaineko eskubideak, atzerrian badaude matrikulatuta edo erregistratuta.

2. Informazio aitortpenak datu hauek jaso beharko ditu:

- a) Ondasun higigarriaren identifikazioa, tipologia azalduta laburki.
- b) Ondasun higigarriaren kokapena: herrialdea edo lurraldea.
- c) Inskribatuta edo matrikulatuta dagoen erregistroa: inskribatuta edo matrikulatuta dagoen erregistroa eta herrialdea edo lurraldea.

d) Erosketa data.

e) Erosketa balioa.

3. Atzerriko ondasun higigarrien gaineko erabiltzeko eta gozatzeko eskubide errealak eta jabetza soila izanez gero, aurreko 2. idatz zatiko a), b) eta c) letretan aipatutako informazioaz gain, titulartasun hori noiz eskuratu zen jaso beharko da, bai eta horren balioa ere abenduaren 31n, ondarearen gaineko zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan finkatutako balorazio arauen arabera kalkulatuta.

4. Artikulu honetan arautzen den informazioa eman beharra luzatzen zaio aurreko 1. idatz zatian aipatzen denaren arabera dagokion aitortzeko urteko edozein momentutan ondasun higigarriaren edo eskubidearen titular edo titular erreal izandako zergapeko orori baldin eta horrelakoa izateari utzi badio urte horretako abenduaren 31n. Kasu hauetan, 2. idatz zatian aipatzen diren datuez gain, informazio aitortzeko ondasun higigarriaren edo eskubidearen eskualdatze balioa eta horren data jaso beharko ditu.

5. Artikulu honetan jasotzen den informazioa eman beharra ez zaie aplikatuko atzerrian dauden edo atzerriko herrialdeetan matrikulatuta edo bertako erregistroetan dauden ondoko ondasun higigarriei edo ondasun higigarrien gaineko eskubideei:

- a) [\(14\)](#) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 12. artikuluan 1. apartatuan aipatzen diren erakundeen titulartasunekoak direnak.
- b) Horien titularrak Araban bizi diren pertsona juridikoak eta gainerako erakundeak eta ez egoiliarren establezimendu egonkorak badira, kontabilitatean banaka erregistratuta eta nahiko identifikatuta.
- c) Horien titularrak Araban bizi diren pertsona fisikoak badira, eta jarduera ekonomiko bat egin eta horien kontabilitatea merkataritzaren kodean xedatutakoaren arabera bada, kontularitzako dokumentazio horretan banaka erregistratuta eta nahiko identifikatuta.
- d) Ez da ondasun higigarrien edo ondasun higigarrien gaineko eskubidearen berri eman beharra izango, 2. idatz zatiko e) letrak eta 3. idatz zatiak aipatutako balioak ez badira banaka 50.000 euro baino gehiago.

6. Hurrengo urteetako aitortpena aurkeztu beharra egongo da baldin eta aurreko 5. idatz zatiko d) letran aipatzen den balio batuak 20.000 euro baino gehiagoko gehikuntza izan badu azken aitortpena aurkeztu beharra ekarri zuenaren aldean.

Nahitaezko izango da aitortpena aurkeztea 4. idatz zatian aipatutako kasuetan, hain zuzen, ondasun higigarriei eta eskubideei dagokiena, abenduaren 31n galdu bada horien titulartasuna.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartu egingo ditu horretarako aurkeztu beharko den aitortpen eredu bat, aurkezteko lekua eta epea eta, hala behar izanez gero, zein kasutan eta baldintza bete beharko den, ordenagailuz edo bide telematikoen bidez zuzenean irakur daitekeen euskarriz.

7. [\(14\)](#) Arabako zerga araudian xedatutako zehapen araubidea aplikatzeko, hainbat datu multzoosatzen dituzte 2. apartatuaren a), b) eta c) letretan aipatzen diren informazioek, apartatu horretan aipatzen diren ondasun higigarriei dagokienez, eta aurreko 3. apartatuan aipatzen diren eskubideak dituzten ondasun higigarriei dagokienez.

Ondorio berberetarako, datua izango dira ondoko hauek:

- a) Aurreko 2. idatz zatiko d) eta e) letrek aipatzen dituzten data eta balioak, ondasun higigarri bakoitzari dagokionez.
- b) 3. idatz zatiak aipatzen dituen datak eta balioak, eskubide bakoitzari dagokionez.
- c) 4. idatz zatiak aipatzen dituen eskualdatze datak eta balioak, ondasun higigarri bakoitzari dagokionez.

23 bis artikulua. [\(14\)](#) Atzerrian kokatutako txanpon birtualei buruzko informazioa emateko betebeharra.

1. Araban bizi diren pertsona fisiko eta juridikoek, bertan bizi ez diren pertsona edo erakundeek establezimendu iraunkorrek eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 35. artikuluan 3. apartatuan aipatzen diren erakundeek urteko informazio aitortpena egin beharko dute, urte bakoitzeko abenduaren 31n, titular diren eta atzerrian kokatutako txanpon birtual guztiei buruz, edo horien onuradun badira, erabiltzeko baimena badute edo nolabait erabiltzeko ahalordea badute, edo, idatz zati honen azken paragrafoan adierazitakoaren arabera, benetako titularra badira eta hirugarrenen izenean kode kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen dituzten pertsonak edo erakundeek zaintzen badituzte, txanpon birtualak mantendu, biltegitatu eta transferitzeko.

Betebehar hori izango dute, halaber, txanpon birtual horien titular, baimendu edo onuradun izan diren pertsona edo erakundeek, edo horiek erabiltzeko ahalordea izan dutenek, edo deklarazioari dagokion urteko edozein unetan titular erreala izan direnek, betiere izaera hori galdu badute urte horretako abenduaren 31n. Kasu horietan, eman beharreko informazioa uzte hori gertatu zen datari egokituko zaio.

Ondorio horietarako, titular erreala izango da Kapitalak zurtzearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoaren arabera, 2. idatz zati horrek aipatzen dituen pertsona edo tresnen izenean dauden txanpon birtualen titular erreala dena, atzerrian badute egoitza edo atzerrian eratu badira.

2. Artikulu honen ondorioetarako, txanpon birtuala Kapitalak zurtzearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 1. artikuluan 5. apartatuan xedatutakoaren arabera ulertuko da.

Txanpon birtualak atzerrian daudela ulertuko da txanponak zaintzen dituen pertsona, erakunde edo establezimendu iraunkorrek, hirugarrenen izenean kode kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen dituenen, txanpon horiek mantendu, biltegitatu eta transferitzeko, ez duenean aurkeztu behar Pertsona Fisikoen Errentaren

gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarriaren 6. apartatuan aipatzen den informazio betebeharra.

3. Zerga Administrazioari eman beharreko informazioak honako hauek jasoko ditu:

a) Txanpon birtualak mantentzeko, biltegitzeko eta transferitzeko hirugarrenen izenean kode kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen dituen pertsonaren edo erakundearen izen-abizenak edo sozietate izena edo izen osoa eta, hala badagokio, identifikazio fiskaleko zenbakia, bai eta helbidea edo webgunearen helbidea ere.

b) Txanpon birtual mota bakoitzaren identifikazio osoa.

c) Txanpon birtual mota bakoitzaren saldoak abenduaren 31n, txanpon birtualeko unitateetan adierazita, eta horien balorazioa eurotan.

Balorazioa eurotan egiteko, behartuta dauden subjektuek negoziazio plataforma nagusiek edo prezioen jarraipena egiteko webguneek abenduaren 31n emandako kotizazioa hartuko dute edo, bestela, txanpon birtualaren merkatu balioaren arrazoizko zenbatespena egingo dute eurotan. Horri dagokionez, zenbatespena egiteko erabilitako kotizazioa edo balioa adieraziko da.

4. Abenduaren 31ko saldoei buruzko informazioa pertsona edo erakunde titullarrak, onuradunak, baimenduak edo txanpon birtualak erabiltzeko ahalmena duenak edo data horretan benetako titular denak eman beharko du.

Gainerako pertsona edo erakunde titullarrek, onuradunek, baimenduek, erabiltzeko ahalmena duten pertsonak edo benetako titullarrek txanpon birtualen saldoak adierazi beharko dituzte gaitasun hori izateari utzi zioten egunean.

5. Artikulu honetan jasotzen den informazioa eman beharra ez zaie aplikatuko ondoko txanpon birtualei:

a) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 12. artikulua 1. apartatuan aipatzen diren erakundeen titulartasunekoak direnak.

b) Araban bizi diren pertsona juridikoen eta gainerako erakundeen titulartasunekoak direnak, bai eta Arabako ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrenak ere, baldin eta kontabilitatean banaka erregistratuta badaude eta beren izenagatik, balioagatik eta zaintza erakundeagatik eta kokatuta dauden herrialdeagatik edo lurraldeagatik identifikatuta badaude.

c) Araban bizi diren pertsona fisikoak titular dituztenak, baldin eta jarduera ekonomiko bat garatzen badute, kontabilitatea Merkataritza Kodean xedatutakoaren arabera egiten badute, kontabilitate dokumentazio horretan banaka erregistratuta badaude eta izenagatik, balioagatik eta zaintza erakundeagatik eta kokatuta dauden herrialdeagatik edo lurraldeagatik identifikatuta badaude.

d) Ez da txanpon birtualen berri eman beharko baldin eta artikulu honen 3. apartatuaren c) letran aipatzen diren abenduaren 31ko saldoak, eurotan, guztira

50.000 eurotik gorakoak ez badira. Baterako muga hori gaindituz gero, txanpon birtual guztiei buruzko informazioa eman beharko da.

6. Betebehar hori eman beharreko informazioaren hurrengo urteko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean bete beharko da, dagokion lekuan eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saileko diputatuak zehazten duen aitorten ereduaren arabera. Halaber, hark ezarri ahal izango du zer kasutan aurkeztu behar den telematikoki.

Aurrekoa gorabehera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saileko diputatuak foru agindu bidez aldatu ahalko du aitorten hori aurkezteko epea.

Hurrengo urteetako aitortena aurkeztu beharra egongo da baldin eta artikuluko honen 5. apartatuaren d) letran aipatzen den saldo batuak 20.000 euro baino gehiagoko gehikuntza izan badu azken aitortena aurkeztu beharra ekarri zuenaren aldean.

Edonola ere, aitortena aurkeztu beharra egongo da artikuluko honetako 4. idatz zatiko azken paragrafoan aurreikusitako kasuetan, bertan aipatzen diren txanpon birtualekiko.

7. Arabako zerga araudian xedatutako zehapen araubidea aplikatzeko, hainbat datu multzoosaten dituzte artikuluko honetako 3. apartatuko a) idatz zatian erakunde bakoitzerako eta artikuluko honetako 3. apartatuko c) idatz zatian aipatzen diren informazioek, bai eta txanpon birtual bakoitzerako artikuluko honetako 4. apartatuko azken paragrafoan aipatzen direnek ere.

Ondorio horietarako, datutzat hartuko da artikuluko honen 3. apartatuaren b) letran txanpon birtual bakoitzerako aipatzen den informazio oro.

III. KAPITULUA [\(7\)](#)

BESTELAKO INFORMAZIO BETEBEHARRAK

24. artikulua. [\(7\)](#) Hiri finkak alokatzeari buruz informatzeko betebeharra

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak urteko informazio aitorten bat aurkeztu beharko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Alokairu Kontratuen Erregistroan jasotako datuei eta fidantza jartzeari dagokienez, martxoaren 15eko 42/2016 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik, Fidantzak jartzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroari buruzkoa.

Zehazki, aitorpenean, besteak beste, alokatutako ondasun higiezinaren identifikazio datuak agertu beharko dira, jarritako fidantza datuekin, errentari eta errentatzaileen zerrenda izendunarekin batera, baita kasuan kasuko erredua onartzeko foru aginduak zehaztutako bestelako informazioarekin ere.

25. artikulua. [\(10\)](#) [\(13\)](#) Turismo erabilerarako etxebizitzaren lagapenaren berri emateko beharra.

1. Turismo erabilerarako etxebizitzaren lagatzaileen eta lagapen hartzaileen artean bitartekaritza egiten duten pertsonak eta erakundeek bitartekaritza xede diren lagapenei buruzko informazio aitortzea aurkeztu behar dute aldian-aldian.

2. Artikulu honetan jasotzen den informazio aitortzearen ondorioetarako bakarrik, turismo erabilerarako etxebizitzatzaletan dira Eusko Legebiltzarraren Turismoari buruzko zuzendaritza 28ko 13/2016 Legearen 53. artikuluko 1. apartatuan ezartzen direnak, eta 13/2016 Lege beraren 54. artikuluko 1. apartatuan ezarritako turismo erabilerarako etxebizitza partikularren gelakako ostatuak.

Kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira etxebizitzaren errentamenduak, Hiri Errentamenduari buruzko azaroaren 29ko 29/1994 Legean edo hura ordeztzen duen araudian definitzen diren moduan, bai eta etxebizitzaren partezko azpierreteamendua (lege arau horren 8. artikuluan aipatua) eta ondasun higiezinak txandaka aprobetxatzeko eskubidea ere.

3. Bitartekaritza joko dira aurreko apartatuan adierazten den erabileraren lagatzailearen eta lagapen hartzailearen artean bitartekaritza zerbitzua ematen duten pertsona edo entitate guztiak, dohainik nahiz kostu bidez egiten dutela.

Bereziki, halakotzat joko dira elkarlaneko plataforma bezala eraturik, aurreko apartatuan adierazten den erabileraren lagapenean bitartekaritza egiten duten pertsona edo entitate guztiak, baldin eta informazio gizarteko zerbitzu emaitzat jotzen badira Gizarte Informazioko Zerbitzuen eta Merkataritza Elektronikoen zuzendaritza 11ko 34/2002 Legean adierazten denaren arabera, bitartekaritzaren gaia den azpiko zerbitzua eman nahiz ez eman, eta lagatzaileei eta lagapen hartzaileei baldintzak ezartzen zaizkiela ere (hala nola prezioa, aseguruak, epeak edo bestelako kontratu baldintzak).

4. Informazio aitortzean honako datu hauek agertu behar dira:

a) Turismo erabilerarako lagatako etxebizitzaren titularraren identifikazioa, baita etxebizitza turismo erabilerarako lagatzen duen eskubidearen titularrarena ere, pertsona bera ez izatekotan.

Identifikazioa izen-abizenen, sozietatearen izenaren edo izen osoaren eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez egingo da, edo kasuan kasuko aitortze eredu onesten duen foru aginduak ezartzen dituen baldintzetan.

Horretarako, lagatzen den eskubidearen titulartzat joko dira turismo erabilerarako lagatako etxebizitzaren jabetza eskubidearen, multijabetza kontratuen, denbora partzialeko jabetzaren edo antzeko formulen, errentamenduen, berrerrentamenduen edo beste edozein erabilera edo gozamen eskubideren titularrak, azken batean etxebizitza horren erabileraren lagatzaile direnak.

b) Higiezinaren identifikazioa, katastro erreferentzia edo zenbaki finkoa adierazita, dagokion aitorten eredia onesten duen foru aginduan ezarritakoaren arabera.

c) Pertsona edo entitate lagatzaileen identifikazioa, baita ere zenbat egunez gozatuko den etxebizitza turismo erabilerarako.

Identifikazioa izen-abizenen, sozietatearen izenaren edo izen osoaren eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez egingo da, edo kasuan kasuko aitorten eredia onesten duen foru aginduak ezartzen dituen baldintzetan.

Horretarako, aurretik adierazi den zerbitzuaerabiltzen duten pertsonen identifikazio agiriaren kopia gorde beharko dute etxebizitza turismo erabilerarako lagatzen dutenek.

d) Eskubidea lagatzen duen titularrak etxebizitza turismo erabilerarako lagatzekozerbitzuaeren truke jasotako zenbatekoa edo, hala badagokio, haren doakotasunaren adierazpena.

5. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren agindu baten bidez onetsiko dira kasuan kasuko aitorten eredia, aurkezteko modua, epea eta lekua, bai eta xedapen hau betetzekogarrantzitsua den beste edozein datu ere.

26. artikulua. (14)Txanpon birtualen saldoei buruz informatzeko beharra.

1. Espainian bizi diren pertsona eta erakundeek eta atzerrian bizi diren pertsona edo erakundeen establezimendu iraunkorrek, hirugarrenen izenean kode kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen badituzte, txanpon birtualak mantendu, biltegiatu eta transferitzeko, bai zerbitzu hori nagusiki ematen bada, bai beste jarduera batekin lotuta ematen bada, zaintzen dituzten txanpon birtual guztiei buruzko urteko informazio aitortpena aurkeztu beharko dute, dagokion eredia onesten duen Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saileko diputatuaren foru aginduak ezartzen duen lekuan, moduan eta epean.

2. Zerga Administrazioari eman beharreko informazioak honako hau jasoko du: urteko uneren batean txanpon birtualen titular, baimendu edo onuradun diren pertsonen edo entitateen izen-abizenak, izen soziala edo izen osoa, helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta saldoak, abenduaren 31n.

Saldoei buruzko informazioak, txanpon birtual bakoitzari dagokionez, honako hauek jasoko ditu: txanpon birtual mota, txanpon birtualeko unitateen kopurua abenduaren 31n eta horien balorazioa eurotan.

Balorazioa eurotan egiteko, behartuta dauden subjektuek negoziazio plataforma nagusiek edo prezioen jarraipena egiteko webguneek abenduaren 31n emandako kotizazioa hartuko dute edo, bestela, txanpon birtualaren merkatu balioaren arrazoizko zenbatespena egingo dute, eurotan, abenduaren 31n. Horri dagokionez, zenbatespena egiteko erabilitako kotizazioa edo balioa adieraziko da.

Era berean, diru fiduziarioaren saldoen berri eman beharko da abenduaren 31n, betiere hirugarrenen kontura badituzte; diru fiduziarioari dagokionez, apartatu honen lehen paragrafoan aipatzen diren titularren, baimenduen edo onuradunen identifikazio datu berberak emango dira, bai eta eurotan duen balorazioa ere, moneta euroa ez bada.

3. Abenduaren 31 baino lehen artikuluko honetako 1. apartatuan aipatzen diren pertsona edo erakundeek artikuluko honetako 2. apartatuan aipatzen diren pertsona edo erakundeen txanpon birtualak zaintzeariutzi badiote, eman beharreko informazioa gertatu den eguneko izango da.

4. Artikulu honen ondorioetarako, txanpon birtuala eta diru fiduziarioa Kapitalak zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 1. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan xedatutakoaren arabera ulertuko dira, hurrenez hurren.

26 bis artikulua. (14) Txanpon birtualekin egindako eragiketei buruz informatzeko beharra.

1. Araban bizi diren pertsona eta erakundeek eta atzerrian bizi diren pertsona edo erakundeek Arabako establezimendu iraunkorrek, baldin eta txanpon birtualen eta diru fiduziarioaren artean edo moneta birtualen artean truke-zerbitzuak ematen badituzte, eragiketa horiek egiteko bitartekari gisa jarduten badute, edo hirugarrenen izenean kode kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen badituzte, txanpon birtualak mantentzeko, biltegitratzeko eta transferitzeko, urtero informazio aitortpen bat aurkeztu beharko dute txanpon birtualak eskuratu, eskualdatu, trukatu eta transferitzeko eragiketei buruz, hitzartutako kontraprestazioa edozein dela ere, bai eta esku hartu duten edo bitartekari izan diren txanpon horietan kobratutako eta ordaindutako eragiketei buruz, dagokion eredia onesten duen Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saileko diputatuaren foru aginduak ezartzen duen tokian, moduan eta epean.

Ez dira aurreko paragrafoan sartutakotzat hartuko honako jarduera hauek soilik egiten dituzten pertsonak edo erakundeak: moneta birtualei buruzko aholkularitza, txanpon birtualekin eragiketak egin nahi dituzten alderdiak harremanetan jartzea, edo txanpon birtualen eta diru fiduziarioaren arteko edo txanpon birtualen arteko truke zerbitzuak, edo hirugarrenen edo haien bezeroen izenean kode kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen dituzten pertsona edo erakundeek diru fiduziarioan kobratzeko eta ordaintzeko aginduei erantzutehutsa.

2. Zerga Administrazioari eman beharreko informazioak honako hauek jasoko ditu: aurreko paragrafoan adierazitako eragiketak egiten dituzten subjektuen izen-abizenak, izen soziala edo izen osoa, helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

Eragiketa bakoitzari dagokionez, Zerga Administrazioari eman beharreko informazioak honako hauek jasoko ditu: eragiketa mota; eragiketaren data; erositako, eskualdatutako, trukaturako edo transferitutako txanpon birtualeko unitateen mota eta kopurua; eragiketa egiteko erabilitako balioa eurotan eta, hala badagokio, informazioa eman behar duen subjektuak eragiketari lotuta jasoko dituen komisio eta gastuak.

Kontraprestaziorik badago eta informazioa eman behar duena bada ordaindu edo jasoko duena, hura jasotzeko edo entregatzeko bitartekari gisa jarduten duena edo horren berri duena, jakinaraziko da diru fiduziarioa, beste moneta edo aktibo birtual bat, ondasun edo zerbitzuak edo aurrekoen konbinazio bat den.

Eragiketak diru fiduziario osoko kontraprestaziorik ez badakar, eta, beraz, eragiketa eurotan baloratu behar bada, behartutako subjektuek eragiketa egin den datan negoziazio plataforma nagusiek edo prezioen jarraipena egiteko webguneek emandako kotizazioa erabiliko dute edo, bestela, eragiketa egin den datan txanpon birtualak duen merkatu balioaren arrazoizko zenbatespena emango dute, eurotan. Horri dagokionez, zenbatespena egiteko erabilitako kotizazioa edo balioa adieraziko da.

3. Araban bizi diren pertsonak eta erakundeak eta atzerrian bizi diren pertsonen edo erakundeen Arabako establezimendu iraunkorrek, txanpon birtual berrien hasierako eskaintzak egiten badituzte, aipatutako urteko informazio aitortpena aurkeztu beharko dute, aurreko apartatuan xedatutako informazioarekin, beste txanpon birtual batzuen edo diru fiduziarioaren truke ematen dituzten txanpon birtual berriei dagokienez, dagokion eredia onesten duen Foru Aginduan ezarritako baldintzetan.

Hala ere, txanpon birtual berrien hasierako eskaintzak artikuluko honen 1. apartatuan aipatzen diren subjektuetako baten bitartekaritzarekin egiten badira, azken horrek egin beharko du urteko informazio aitortpena, txanpon birtual berrien hasierako eskaintza egiten duen pertsonaren edo erakundearen bizilekua edozein dela ere, eta haren identifikazioa eta aurreko apartatuan ezarritako informazioa jasoko ditu, artikuluko honen 1. apartatuan aipatzen diren eta hasierako eskaintza horren esparruan egiten diren eragiketa guztiei dagokienez, dagokion eredia onesten duen Foru Aginduak ezarritakoaren arabera.

4. Artikulu honen ondorioetarako, txanpon birtuala eta diru fiduziarioa Kapitalak zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 1. artikuluko 5. eta 6. apartatuaren xedatutakoaren arabera ulertuko dira, hurrenez hurren.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Merkatu antolatuetan negoziatutako edozein erakunderen funts propioetako partaidetzaren balio adierazgarriak.

Bat. Merkatu antolatuetan negoziatutako edozein erakunderen kapital sozialaren edo funts propioen akzio eta partaidetzak, salbu inbertsio kolektiboko erakundeei dagozkienak, urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoaren batez besteko negoziazio balioaren arabera konputatuko dira.

Eragin horietarako, administrazio eskudunak merkatu antolatuetan negoziatzen diren baloreen zerranda argitaratuko du urtero, urteko laugarren hiruhilekoari dagokion batez besteko kotizazioarekin.

Bi. Antolatutako merkatuetan kotizatzen diren erakunde juridikoek igorritako eta oraindik kotizazio ofizialerako onartu gabeko akzio berrien harpidetzaren kasuan, harpidetzako epealdiaren barruan titulu zaharrekin egindako azken negoziazioko balioa hartuko da akzio horien baliozat.

Hiru. Ordaintzeko dauden kapital zabalkuntzen kasuan, akzioen balioespena aurreko arauari jarraituz egingo da, erabat ordainduta baleude bezalaxe, ordaintzeko dagoen zatia subjektu pasiboaren zor bezala sartuz.

Bigarrena. Bizi aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak.

Bat. Bizi aseguruak Zerga sortzen den unean horiek duten erreskate balioa gorabehera zenbatuko dira.

Bi. Aldi baterako errentak edo biziarteko errentak, kapitala dirutan, ondasun higigarritan edo higiezinetan ematearen ondorioz sortu direnean, Zerga sortzen den datan duten kapitalizazio balioaren arabera zenbatu behar dira, pentsioak eratzeko Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Zergan adierazi diren arau berak aplikatuz.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik gelditu dira foru dekretu honetan ezarritakoaren kontra doazen maila bereko edo beheragoko mailako xedapenak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Arauak emateko ahalmena.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko eta aurrera eramateko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

[\(3\)](#) "I. eranskina, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duen abenduaren 23ko Diputatuen Kontseiluaren 111/2008 Foru Dekretuarena.

Finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duen abenduaren 23ko Diputatuen Kontseiluaren 111/2008 Foru Dekretuaren 9. artikuluko 3., 4. eta 5. idatz zatiei dagokien aitortpenaren eredua.

Izena:, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (1):, (erakunde aitortzailea)ren izenean eta orde:, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (1): eta helbidea:, honako hau izanik (markatu egokia dena):

(a) Idazpenetako zor publikoaren merkatuko erakunde kudeatzailea.

(b) Atzerrian egoitza duen balioen konpentsazio eta likidazio sistemen erakunde kudeatzailea.

(c) Espainian egoitza duten balioen konpentsazio eta likidazio erakundeetan hirugarrenen kontura balioak mantentzen dituzten erakundeak.

(d) Jaulkitzaileak izendatutako ordainketa agentea.

Aitorpen hau egiten du, bere erregistroetan jasotzen diren datuen arabera:

1. Bederatzigarren artikuluko 3. eta 4. idatz zatiei dagokienez:

1.1 Balioen identifikazioa

1.2 Etekinak ordaintzeko eguna (edo itzultzeko, deskontuan edo bananduta jaulkitako balioak badira)

1.3 Etekinen zenbatekoa, guztira (edo itzultzekoa, guztira, edonola ere, deskontuan edo bananduta jaulkitako balioak badira)

1.4 Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagozkien eteकिनen zenbatekoa, salbu eta banandutako kupoiak eta banandutako printzipalak, horien ordainketan erakunde kudeatzaile batek parte hartzen duenean.....

1.5 Bederatzigarren artikuluko 2. idatz zatiaren arabera osorik ordaindu behar diren eteकिनen zenbatekoa (edo itzultzekoa, guztira, deskontuan edo bananduta jaulkitako balioak badira).

2. Bederatzigarren artikuluko 5. idatz zatiari dagokionez.

2.1 Balioen identifikazioa

2.2 Etekinak ordaintzeko eguna (edo itzultzeko, deskontuan edo bananduta jaulkitako balioak badira)

2.3 Eteकिनen zenbatekoa, guztira (edo itzultzekoa, guztira, edonola ere, deskontuan edo bananduta jaulkitako balioak badira)

2.4 Atzerrian egoitza duen balioen konpentsazio eta likidazio sistemen A erakunde kudeatzaileari dagokion zenbatekoa.

2.5 Atzerrian egoitza duen balioen konpentsazio eta likidazio sistemen B erakunde kudeatzaileari dagokion zenbatekoa.

2.6 Atzerrian egoitza duen balioen konpentsazio eta likidazio sistemen C erakunde kudeatzaileari dagokion zenbatekoa.

Eta hauxe aitortzen dut.....(e)n, 2012ko.....aren.....(e)(a)n.

(1) Establezimendu iraunkorrik ez duten pertsona, fisiko zein juridiko, ez-egoiliarren kasuan, bizi diren herrialdearen arabera dagokien zenbakia edo kodea jarriko da.”

OHARRAK

- (1) 14/2010 Foru Dekretua, apirilaren 10ekoa.
(ALHAO, 46. zk., 10-4-30ekoa)
- (2) 45/2010 Foru Dekretua, irailaren 28koa.
(ALHAO, 115. zk., 10-10-8koa)
- (3) 8/2012 Foru Dekretua, otsailaren 11koa.
(ALHAO, 24. zk., 12-2-27koa).
- (4) 34/2013 Foru Dekretua, urriaren 18koa.
(ALHAO, 119. zk., 13-10-16koa)
- (5) 5/2014 Foru Dekretua, otsailaren 11koa.
(ALHAO, 20. zk., 14-2-19koa)
- (6) 9/2015 Foru Dekretua, martxoaren 10ekoa.
(ALHAO, 33. zk., 15-3-18koa)
- (6b) 6/2017 Foru Dekretua, otsailaren 21ekoa.
(ALHAO, 25. zk., 17-3-1ekoa)
- (7) 56/2017 Foru Dekretua, abenduaren 5ekoa.
(ALHAO, 141. zk., 17-12-13koa)
- (8) 59/2018 Foru Dekretua, azaroaren 27koa.
(ALHAO, 140. zk., 18-12-5ekoa)
- (9) 60/2018 Foru Dekretua, abenduaren 11koa.
(ALHAO, 146. zk., 18-12-19koa)
- (10) 30/2019 Foru Dekretua, ekainaren 11koa.
(ALHAO, 71. zk., 19-06-19koa)
- (11) 34/2019 Foru Dekretua, uztailaren 23koa.
(ALHAO, 88. zk., 19-07-31ekoa)

- (12) 10/2022 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa.
(ALHAO, 27. Zk., 22-3-4koa)
- (13) 11/2022 Foru Dekretua, martxoaren 8koa.
(ALHAO, 32. Zk., 22-3-16koa)
- (14) 49/2023 Foru Dekretua, abenduaren 19koa.
(ALHAO, 149. Zk., 23-12-27koa)